AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

134

436/2012 DEKRETUA, abenduaren 31koa, Iñaki Goirizelaia Ordorika jauna Euskal Herriko Unibertsitateko errektore gorenaren kargutik kentzea xedatzeko dena.

2012ko abenduaren 21ean, Euskal Herriko Unibertsitateko Hauteskunde Batzordeko Orokorreko lehendakari gisa ziharduela, Irakaslego errektoreordeak Euskal Herriko Unibertsitateko Idazkaritza Nagusiaren egiaztagiri bat bidali zuen, Euskal Herriko Unibertsitateko errektorea behin betiko izendatzeari buruzkoa; izendapen hori, Euskal Herriko Unibertsitateko Estatutuen 179. artikuluarekin eta Errektorea izendatzeko Araudiarekin bat datorrelarik.

Hortaz, Euskal Herriko Unibertsitateko Estatutuen 180. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriaz, Iñaki Goirizelaia Ordorika jauna Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen kargutik kentzea xedatzen da.

Horregatik, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2012ko abenduaren 31n egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Iñaki Goirizelaia Ordorika jauna Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen kargutik kentzea.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean bertan izango du indarra dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 2012ko abenduaren 31n.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.